

GETXOKO UDALERRIKO GIZARTE KOHESIOAREN ARLOAN DIHARDUTEN ERAKUNDEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2023ko DEIALDIA: LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK ETA ERAKUNDE ONURADUNEN BALDINTZAK

SARRERA

Getxoko Udala tokiko administrazio publikoa da, herritarren zerbitzutan dagoena, eta honela egiten du bere jarduera:

- Herritarren eta gizarte eragileen parte hartzea eta elkarreragina jasoz;
- Beraien eguneroko bizitzan eragina duten oinarrizko beharrezanei erantzunez;
- Getxotarrei banako eta taldeko ongizate maila hobekia lortzen laguntzen dieten bizi-baldintzak ahalbidetuz.

Jarduera herritarren aniztasuna kontuan hartuta egiten da, eta arreta berezia eskaintzen zaie egoera sozial, ekonomiko, sexu, adin, jatorri, dibertsitate funtzional eta abarreatik babesgabeenak diren kolektiboak.

Gizarte Kohesioaren arloa Gizarte Zerbitzuen eta Komunitateko esku-hartze unitateek osatzen dute (Boluntariotzaren sustapena, Immigrazioa eta kulturartekotasuna, Mendekotasunen prebentzioa, Hezkuntza, Garapenerako lankidetzak, Berdintasuna, Gazteria eta Zahartze aktiboa).

Komunitateko esku-hartzearen helburua da herritarrak, hirugarren sektorea eta erakunde-sarea inplikatzeko komunitate aktibo, inklusibo eta solidarioa eraikitzeko. Komunitate-ekintza:

- Parte-hartzailea da, pertsonak deitzen dituen eta pertsonengan eragitea bilatzen duen ekintza den heinean, haien ahalduz aktiboa indartzeko.
- Kolaboratiboa da, ekintza publikoaren eta gizarte zibilaren nahiz hirugarren sektorearen autoantolaketaren artean sinergia bilatzen duen neurrian.
- Eraldatzailea da, pertsonen inguruneetan edo eragiten dieten gizarte-egituretan egiturazko aldaketak eragin nahi dituen neurrian.

Gizarte Kohesioaren arloak bultzatzen duen prozesuetako bat asoziazionismoari eta boluntariotzari laguntzea da, parte-hartzea eta elkartasuna sustatzen lagunduko duten dirulaguntzen bidez.

Getxoko Udalaren dirulaguntza-jarduera 2020-2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago, eta honako hau da bere izateko arrazoia: *"Udalerriko gizarte zibil egituratuak intereseko udal-kudeaketako eremuetan parte har dezan bultzatzea, sustatzea eta indartzea, elkarte-sareak garatutako interes orokorreko proiektuei eta lanari laguntza ekonomikoa emanez"*.

Honako hauek dira jarduketa-printzipio orokorrak, Plan Estrategikoaren funtsezko elementuak eta dirulaguntzen arloko udal-kudeaketa arautzen dutenak:

- a) Publizitatea eta lehia.
- b) Objektibotasuna funts publikoak esleitzeko prozesuan, proiektuak aukeratzeko irizpideak eta horiek zenbatzeko haztapen metodoak ezarri.
- c) Berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- d) Gardentasuna baliabide publikoak banatzeko prozesuan, emakida prozesuan eta emaitzak argitaratzeko prozesuan.
- e) Eraginkortasuna helburuak betetzean, dirulaguntzen jarraipena eta kontrola egiteko prozedura bat ezarri.
- f) Efizientzia baliabide publikoak erabiltzerakoan eta ematerakoan.

1. artikulua: ARAUBIDE JURIDIKOA.

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2021eko abenduaren 23ko osoko bilkurak onartua eta 2022ko martxoaren 18ko BAO onargaratua.
- Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2020-2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2021eko abuztuaren 10ean BAO onargaratua.
- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa.
- 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuenak.
- Deialdi hau.

2. artikulua: HELBURUA ETA XEDEA.

Deialdiaren xedea da 2023ko dirulaguntzak emateko arauak zehaztea, udal-aurrekontuetan ezarritako muga barruan. Dirulaguntzak emango zaizkie nortasun juridikoa duten, irabazi-asmorik ez duten eta Getxoko udalerrian jarduerak egiten dituzten edo getxotarrei zuzendutako entitate, elkarte edo fundazioei (aurrerantzean, erakundeak). Erakundeak gizarte-kohesioaren arlokoak izango dira, eta gizarte-kohesioa osatzen duten edozein sektore-eremutakoak izango dira:

- Gizarte eraldaketarako heziketa eta sentsibilizazioa
- Haurrak eta gazteak
- Zahartze aktiboa
- Balioetan oinarritutako heziketa.
- Mendekotasunak prebenitzea
- Gizarte zerbitzuak

Edo, bestela, zeharkako politiketatik dihardutenak:

- Berdintasuna
- Kultura-artekotasuna
- Aniztasun funtzionala
- Belaunaldien aniztasuna
- Aniztasun afektibo-sexuala
- Elkartasuna

Honako hau lortu nahi da:

- Udalerrian gizarte-kohesio handiagoa sustatzea.
- Udalerrian asoziazionismoa sustatu eta bultzatzea.
- Gizarte-kohesioaren arloan programak, prestazioak eta jarduerak garatzeko gizarte-ekimenari laguntzea.
- Getxoko Udalaren eta gizarte-erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea.

3. artikulua: ERAKUNDE HARTZAI LEAK.

Erakunde hartzaile izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Irabazteko asmorik ez izatea.
- Erakunde gisa erregistratuta egotea dagokion erregistro publikoan. Oinarri arautzaile hauek onartzen diren egunean erakundeak gutxienez urtebeteko antzintasuna izan beharko du.
- Egoitza edo ordezkaritza udalerrian duten erakunde guztiak Getxoko Erakunde Erregistroan inskribatuta egotea.
- Gizarte-kohesioaren arloko jarduerak garatzea.
- Proiektua oso-osorik Getxon garatzea edo proiektuaren hartzaileen % 50 gutxienez getxotarrak izatea.

Proiektuak partzuergoan garatu nahi dituzten pertsona juridikoen elkarteak erakunde onuradunak izan daitezke. Elkarteko kide guztiek arestian aipatutako baldintzak bete beharko dituzte.

Eskaeran eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz adierazi beharko dira elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, haiek ere erakunde onuradunatzat hartuko baitira.

Hala egiten ez bada, ulertuko da elkarteko erakunde guztiek denen artean erantzungo dietela hartutako konpromisoei, eta aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko baliokidea jasoko dute. Nolanahi ere, elkartearen erakunde-ordezkari bat izendatu beharko da eta ahalorde askietsiak izango ditu, erakunde onuradun gisa elkarteari dagozkion eskakizunak betetzeko.

Oinarri hauetan erakunde onuradun izateko ezarritako baldintzak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera bete behar dira, eta dirulaguntzaren indarraldian zehar mantendu.

Erakundeak ezin izango dira dirulaguntzen onuradunak izan baldin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan xedatutako egoeraren batean badaude. Halaber, ezingo dute dirulaguntzarik jaso sexu-diskriminazioagatik zigor administratibo edo penala betetzen ari diren erakundeek, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ebazpen honetan ezarritako laguntzak eskuratzeko debekua dutenek ere.

4. artikulua: KREDITUA

Dirulaguntzen deialdi honetarako gehieneko kreditu erabilgarria 238.056 €-koa da, eta 02000 23100 4810000 partidari egozten zaio, dirulaguntza-ildoan artean banatzeko.

Ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeek eskaera bakarra aurkez dezakete 1. ildoan, eta proiektu bakarra 2. ildoan.

4.1 Gehieneko zenbatekoa erakunde eta eskaera bakoitzeko:

- Deialdiak muga bat ezartzen du ildo eta/edo azpi-ildo bakoitzeko.
- Erakunde bakoitzak 11.000 € jasoko ditu gehienez, aurkezteko eskubidea duen ildo guztiak batuta. Muga hori ez da kontuan hartuko 2_A2 ildoan partzuergoan aurkezten bada.

- 1. ildoan zein 2. ildoan aurkeztutako gastuen % 100 eska daiteke, betiere ildo bakoitzean ezarritako muga gainditzen ez bada. Kasu guztietan, aurkeztutako aurrekontuaren % 100 gauzatu eta justifikatuko da.
- Oinarri arautzaile espezifikoetan ezarritako irizpideak aplikatu ondoren diruz lagundu daitekeen edozein ildotan kreditua geldituz gero, beste ildoetako beharrak estaltzeko erabili ahal izango da.

Honako taula honetan, dagoen kreditua, dirulaguntza-ildo bakoitzaren muga eta finantzaketa-muga laburbiltzen dira:

Ildoa/ Línea	Aurreikusitako kreditua/ Crédito previsto	Eskari eta entitate bakoitzeko gehienekoa emakida/ Concesión máxima por entidad y solicitud	Emakida Erregimena/ Régimen Concesión	Finantzaketa muga/ Límite financiación
1	111.720 €	3.000 € > 3 urteko erakundeak/ entidades > 3 años 1.000 € < 3 urteko erakundeak/ entidades < 3 años	Hainbanaketa/ Prorrata	Aurkeztutako gastuen % 100 100% de los gastos presentados
2	2A: 116.336 €		Norgehiagoka/ concurrentia competitiva	Aurkeztutako proiektuen % 100 100% del proyecto presentado
	2_A1: 76.336 €	9.000 € Banaka aurkezten diren erakunde getxotarrak/ entidades de Getxo que se presenten a título individual		
	2_A2: 40.000 €	20.000 € Erakunde Getxotarrak Partzuergoan aurkeztutako proiektu bakoitzeko / por proyecto presentado en consorcio entre entidades de Getxo.		
	2B: 10.000 €	1.000 € erakunde ez getxotarrak entidades de fuera de Getxo	Hainbanaketa/ Prorrata	
GUZTIRA TOTAL	238.056 €			

5. artikulua. DIRULAGUNTZEN ILDOAK.

5.1: 1. DIRULAGUNTZA-ILDOA: GETXOKO ERAKUNDEEN MANTENTZEA, FUNTZIONAMENDUA ETA SENDOTZEA

5.1.1.- Xedea:

Ildo honek asoziazionismoa sustatu eta indartu nahi du, eta Gizarte Kohesioaren arloari lotutako erakunde-sare zabala sortzen lagundu.

Honako erakunde hauek jaso ahal izango dute dirulaguntza-ildo hau:

- egoitza soziala edo ordezkari Getxon dutenak
- Getxoko Udalaren erregistroan erregistratuta daudenak

Ildo honetako dirulaguntzak jasoko dituzte mantentze-gastu arruntek eta erakundeak garatutako funtzionamendu-gastu guztiek, betiere gehieneko zenbatekoa gainditzen ez badute.

Erakundearen mantentze arrunta:

- Langileak (nomina eta gizarte-segurantza, aseguruak, dietak...).
- Gastu arruntak (erakundearen egoitzari edo ordezkariari dagokion lokalaren alokairua, garbiketa, hornidurak...).

Erakundearen funtzionamendua, indartzea eta jarduerak:

Atal honetan sar daitezke erakundeak funtzionatzeko, indartzeko eta jarduerak egiteko sortzen dituen gastuak (proiektutzat hartzeko garrantzi nahikorik ez duen ekintza/jarduera oro).

- Erakundea sustatzeko informazioa (urteko memoriak, liburuxkak, kartelak, jardunaldiak, web-orriak edo sare sozialak) eta dibulgazioa (publizitatea eta propaganda).
- Boluntarioak prestatzea eta lortzea (ikastaroak, mintegiak...).
- Erakundearen kudeaketa hobetzearekin edo bazkideen nahiz hartzaileen gaikuntza handitzearekin lotutakoak: erakundearen gogoeta estrategikoak; kudeaketa-, berdintasun-eta/edo komunikazio-planak; esku hartzeko material eta baliabide espezifikoak prestatzea.
- Elkartekideei edo erakundearen arloari zuzendutako esku-hartze ekintza/jarduera espezifikoak.

5.1.2.- Ildo honetarako kreditua: 111.720 euro

5.1.3.- Emakidaren erregimena: hainbanaketa

5.1.4.- Gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzeko:

3.000 euro, baldin eta erakunde gisa hiru urte edo gehiago erregistratuta badaramatzate eta azken hiru urteetako batean Gizarte Kohesioaren arloko edozein zerbitzuren finantzaketa jaso badute.

Zenbateko hori 2.500 eurokoa izango da erakundea kudeatzeko udal-lokal bat esleituta duten erakundeentzat.

Zenbateko hori gehenez 2.000 eurokoa izango da 2 A ildoan 9.000 euro lortzen dituzten erakundeentzat.

1.0 euro, baldin eta erakunde gisa hiru urte baino gutxiago erregistratuta badaramate eta azken hiru urteetako batean ez badute jaso Gizarte Kohesioaren arloko edozein zerbitzuren finantzaketa.

Zenbateko hori 750 eurokoa izango da erakundea kudeatzeko udal-lokal bat esleituta duten erakundeentzat.

Gehienez ere aurkeztutako gastu guztiaren % 100 emango da, 1. ildoak ezartzen duen gehieneko mugaraino. Dirulaguntzaren zenbatekoa kontuan hartuta, mantentze-, funtzionamendu- eta indartze-gastuetarako 20.000 € zenbatuko dira gehienez. Gauzatutako guztizko gastuaren % 100 justifikatu behar da, zehaztutako mugarekin.

5.2: 2. DIRULAGUNTZA-ILDOA: INTERESEKO PROIEKTUAK GIZARTE KOHESIOAREN ARLOAN

5.2.1.- Xedea:

Ildo honen asmoa da oinarri hauen xedean zehaztutako Gizarte Kohesioaren arloko jarduketaremuetarako interesekoak diren proiektuak babestea eta sustatzea.

Dirulaguntza-ildo honetan honako hauek sartzen dira:

- Garapenerako Lankidetzari eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruz sentsibilizatzeko jarduerak.
- Ikuspegi feminista argia duten jarduerak edo proiektuak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxista desagerrarazteko.
- Harreraren, aukera-berdintasunaren eta/edo topaguneak sortzearen bidez herritar anitzen arteko kulturartekotasuna sustatzen duten jarduerak.
- Aisia hezitzaileko eta/edo gazteen intereseko jarduerak.
- Pertsonen autonomia, babesa eta gizarteratzea sustatzen duten jarduerak.
- Gizarte-zerbitzuen eta udaleko edo udalez gaindiko beste gizarte-politika batzuen arteko integrazio intersektional berria eraikitzea sustatzen duten jarduerak, edo beste sektore-eremu unibertsal batzuk barne hartzen dituztenak, hala nola zahartze aktiboa eta mendekotasunen prebentzioa.
- Dibertsitate funtzionala jorratzen duten jarduerak, arretaren, parte-hartzea sustatzearen, autonomiaren eta/edo sentsibilizazioaren ikuspegitik.

Ez dira diruz lagunduko oinarri arautzaile hauen xedearekin bat ez datozen jarduerak edo beste erakunde publiko batzuen edo beste udal-arlo batzuen eskumenekoak direnak.

Ildo honetan, honako gastu hauek lagunduko dira diruz:

- Zuzeneko gastuak (proiektua garatzeko materialak, langileen gastuak, kanpo-kontratazioak, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren bidaiak eta egonaldiak, publizitatea eta itzulpen-gastuak).
- Zeharkako gastuak, gehienez ere Getxoko Udalari eskatutako dirulaguntzaren balioaren % 5.

2. ildoko proiektuetara aurkezten diren erakundeek bermatu behar dute aurkeztutako proiektua oso-osorik Getxon garatuko dela eta/edo gutxienez proiektuaren hartzaileen % 50 getxotarrak direla.

Gehienez ere, aurkeztutako proiektuaren % 100 eskatu ahal izango da.

5.2.2.- Azpi-ildoak:

2. A Egoitza soziala edo ordezkari Getxon duten eta Getxoko erakundeekin erregistroan inskribatuta dauden erakundeak

Ildo honetarako kreditua: 116.336 euro

Dirulaguntzak emateko erregimena norgehiagoka da, 14. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatu ondoren.

Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskaerak alderatu egingo dira, balorazio-irizpideen arabera eskaeren arteko lehenetsua ezartzeko. Dirulaguntzak puntuazio handiena lortu dutenei soilik esleituko zaizkie, betiere deialdian kreditu erabilgarriaren barruan ezarritako mugarekin.

2_A1: Kreditua: 76.336 €

Erakunde bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 9.000 €

2_A2: Kreditua: 40.000 €

Partzuergoan aurkeztutako proiektu bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 20.000 €

Proiektuan aurkeztutako aurrekontu osoa eta/edo egindako gastua justifikatu behar da.

2. B Egoitza soziala edo ordezkari-tza Bizkaiko beste udalerriren batean duten erakundeak

Ildo honetarako kreditua: 10.000 euro

Emakidaren erregimena hainbanaketa da.

Erakunde bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 1.000 euro

Proiektuan aurkeztutako aurrekontu osoa eta/edo egindako gastua justifikatu behar da.

6. artikulua: AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaerak, 2021eko abenduaren 23ko osoko bilkuran onartutako Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren arabera, Administrazio Elektronikokoaren Bulegoaren bidez aurkeztuko dira www.getxo.eus webgunean, deialdi honen bidez onartutako eredu normalizatuetan.

Oinarriak nahiz eskaera inprimakiak ondorengo web orrian kontsulta daitezke: www.getxo.eus.

7. artikulua: BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA.

- a) Eskaera normalizatua (I. eranskina).
- b) Eskaeraren ordezkariaren NAN/AIZren fotokopia.
- c) Erakundearen IFKren fotokopia.
- d) Entitatearen estatutuen fotokopia.
- e) Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroko, udal erregistroko edo dagokion erregistroko inskripzio-ziurtagiriaren fotokopia.
- f) 3.000 €-tik gorako eskaeren kasuan, ofizios eskatuko da Bizkaiko Foru Ogasunak edo beste edozein foru- edo estatu-ogasun publikok eta Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria (betiere erakunde eskatzaileak horren kontra egiten ez badu), egiaztatzeko erakundeak egunean dituela Bizkaiko Foru Ogasunarekiko edo beste edozein foru- edo

- estatu-ogasun publikorekiko zerga-betebeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere. Kontra egonez gero, erakundeak dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- g) Udalak ofizioz egiaztatuko du erakunde eskatzaileak udalarekin zerga-zorrik ez duela.
 - h) 1. ildoan, erakundeari buruzko datuak (II. eranskina).
 - i) 2. ildoan, erakundearen proiektua (III. eranskina).
- Proiektua III. eranskinean zehaztutako formatuan soilik entregatuko da, eta ez da 30 orrialde baino gehiagokoa izango (A4, alde batetik idatzita, 1,5eko lerroartea eta Arial 12 letra). Ez dira irakurriko ez ebaluatuko luzera hori gainditzen duten orriak.
- j) Proiektua gauzatzeko ikastetxe, erakunde edo kolektiboren baten parte-hartze aktiboa behar bada, ikastetxeko zuzendaritzaren, erakundearen edo inplikaturako kolektiboen gutun bat erantsi beharko da, non proiektuan parte hartzeko interesa dutela jakinaraziko duten.
 - k) Udalak, kasu bakoitzaren arabera, beste edozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izango dio erakunde eskatzaileari.

Udalak erakundeei eskaera egin aurreko bi urteetan antzeko dirulaguntzak eman badizkie, ez dituzte berriro aurkeztu beharko aldatu ez diren dokumentuak, baina eskaeran berariaz adierazi beharko dute inguruabar hori.

8. artikulua: IZAPIDETZEA, EBAZPENA ETA ERREKURTSOAK

Instrukzio-organoa, kide anitzeko organoa eta tokiko gobernu batzordea:
Dirulaguntzak emateko instrukzio-organoa Komunitateko esku-hartze arloko arduradunak eta arloko teknikariak osatuko dute.

Instrukzio-organoak txosten tekniko bat egingo du eskatutako jardueren interesa egiaztatzeko. Horretarako, oinarritzat hartuko du Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, osoko bilkurak 2021eko abenduaren 23an onartua, eta oinarri arautzaile hauetan ezarritakoa.

Erabaki proposamena kide anitzeko organoak Tokiko Gobernu Batzordeari igorriko dio, eta hura honako hauek osatuko dute:

BATZORDEBURUA: Alkatea.

KIDEAK:

- Idazkaritza Nagusiko eta Herritarren Segurtagarri zinegotzia.
- Ekonomia Sustapenaren, Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Diziplinaren eta Udal Eraikinen Arloko zinegotzia
- Hiriko Ingurumen Zerbitzuetako eta Ingurumen Kalitateko zinegotzia.
- Idazkari nagusia.
- Kontu-hartzaile nagusia.

IDAZKARITZA NAGUSIA:

- Idazkaritza Nagusiko teknikaria.

Dirulaguntzak ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea izango da.

Ebazpena emateko epea sei hilabetekoa izango da gehienez, eskaerak aurkezteko finkatutako azken egunetik aurrera zenbatuta. Ebazpena emateko epea amaitzean ez bada berariazko ebazpenik eman, dirulaguntza eskaera ez da onartutzat joko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Eskaerak birformulatzea:

2A ildoko eskaera birformulatzeko eskatuko da, baldin eta eman beharreko zenbatekoa eskatutako proiektuaren zenbatekoaren % 75 baino txikiagoa bada eta proiektuaren finantzaketa bermatuta ez badago. Kasu horietan, instrukzio-organoak erakundeari jakinaraziko dio bost egun balioduneko epean proiektua birplanteatu beharko duela, konpromisoak eta baldintzak emandako dirulaguntzara egokitzeko, betiere dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatuz; edo, bestela, dirulaguntzari uko egin beharko diola. Berariazko erantzunik ez balego, instrukzio-organoak eskaeran atzera egin dela ulertuko du.

Baliabideak:

Dirulaguntza ematea edo ukatzea erabakitzen duen ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari. Horren aurrean, erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote tokiko gobernu batzordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Dirulaguntzen publikotasuna:

Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen base nazionalean argitaratuko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako Dirulaguntzen Lege Orokorren 20. artikulua betez.

Ordainketa:

Dirulaguntza aurrez ordainduko da, dirulaguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko beharrezko finantzaketa gisa.

Ordainketa ez da gauzatuko erakundeak ordainketa izapidetzen den egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu.

Gainfinantzaketa:

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako beste edozeinekin. Nolanahi ere, ezin izango da gainfinantzaketarik egon; hau da, beste erakunde batzuekin batera emandako dirulaguntzen guztizko zenbatekoak ezin izango du gainditu jardueraren guztizko kostua.

Dirulaguntzak pilatzeagatik gainfinantzaketarik gertatuz gero, erakunde onuradunak Getxoko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, udalak emandako zenbatekoaren proportzioan eta finantzatutako zenbateko osoarekiko.

9. artikulua: ERAKUNDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

Erakunde onuradunek eskubidea dute emandako zenbatekoa kobratzeko, deialdian eta emakida-ebazpenean ezarritako moduan eta baldintzetan.

Era berean, organo emaileari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, emakida-ebazpena aldatzeko, finkatutako epeak luzatzeari, emandako zenbatekoa murrizteari edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzeari dagokienez. Horiek baimentzeko, ustekabeko inguruabarren ondorioz behar bezala arrazoituta egon beharko dira edo jarduketa behar bezala burutzeko beharrezkoak izan beharko dira, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua funtsean aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Dirulaguntzak jasoko dituzten erakunde onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Dirulaguntza emandako helburura bideratzea.
- b) Aurreikusitako proiektua edo programa gauzatzeko ekar ditzakeen erantzukizun guztiak onuradunak hartuko ditu bere edo programa gain.

- c) Dirulaguntza eman zizaion programa ez aldatzea Gizarte Kohesioaren Arloaren aldez aurreko adostasunik gabe.
- d) Emandako dirulaguntza nola aplikatzen den egiaztatzeko eta jarraipena egiteko Gizarte Kohesioaren Arloak egokitzen jotzen dituen jarduketak erraztea.
- e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla jakinaraztea jakin bezain laster, eta, nolana ere, jasotako funtsak zertarako erabiliko diren justifikatu aurretik.
- f) Dirulaguntza justifikatzea eta lau urtez gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak.
- g) Getxoko Udalarekiko, Ogasun Publikoarekiko (Forukoa edo Estatukoa) eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea, bai dirulaguntza eman aurretik bai ordaindu aurretik.
- h) Publizitatean eta komunikazio-egintzetan adieraztea proiektua, programa edo jarduera Getxoko Udalarekin lankidetzan egin dela (kolaboratzaile-epigrafean logotipoa erabiliko da).
- i) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera inklusiboa, ez-sexista eta ez-diskriminatzailea erabiltzea.
- j) Dokumentazio eta publizitate orotan emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak eta/edo arrazistak bultzatzen dituzten irudiak saihestea, eta berdintasun- eta kulturartekotasun-balioak dituen irudia sustatzea.
- k) Hizkuntza-normalizazioko irizpideak aplikatzea proiektu, programa edo jarduerarekin lotutako publizitatean eta komunikazioan, dirulaguntzarekin zerikusia duten kartel, publizitate eta komunikazio guztiak elebidunak izateko.

Erakunde onuradunen betebeharra da ezarritako betebeharrak betetzea dirulaguntzaren indarraldi osoan zehar, eskaera aurkezteko azken egunetik aurrera zenbatzen hasita.

10. artikulua: DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN ETA DIRUZ LAGUN EZIN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira argi eta garbi diruz lagundutako jarduera gauzatzeko behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzak emateko ebazpenetan ezarritako epean egiten direnak.

Emandako dirulaguntzaren % 100 inputatu ahal izango zaie langile-gastuei.

Zeharkako gastuei gehienez % 5 inputatu ahal izango zaie, eta oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera egin beharko da, kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkion neurrian.

Ondasun inbentariagarriak diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira, baldin eta proiekturako ezinbestekoak direla behar bezala arrazoitzen bada.

Diruz lagun ezin daitezkeen gastuak dira banku-kontuen interes zordunak, interesak, ginkarguak eta zehapen administratibo eta penalak, eta prozedura judizialen gastuak, bai eta zeharkako zergak ere, berreskuragarriak direnean.

11. artikulua: DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Jasotako dirulaguntza Administrazio Elektronikoaren Bulegoaren bidez justifikatu beharko da, www.getxo.eus webgunean.

1. ildoan, diruz lagundutako gastuak eta jarduerak/proiektuak 2023ko abenduaren 31ra arte egin ahal izango dira. Justifikazioa aurkezteko epea, gehienez, 2024ko otsailaren 28a izango da. Horixe izango da emateko azken eguna.

2. ildoan, dirulaguntza hamabi hilabeteko gehieneko epean gauzatu ahal izango da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen denetik zenbatzen hasita. Jarduera amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean justifikatu beharko da.

Gastuaren % 100 justifikatu beharko da dirulaguntza-ildo bakoitzean.

Eman beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

- a) 1. ildoan, justifikazio-memoria, IV. eranskinaren arabera.
- b) 2. ildoan, justifikazio-memoria, V. eranskinaren arabera.
- c) Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia dela-eta argitaratu diren liburuxka, kartel, liburu, bideo, euskarri digital (cd, dvd, pendrive...) eta abarren ale bana.
- d) Jarduera hori beste erakunde publiko edo pribaturen batek emandako beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin batera finantzatu bada, justifikazioaren zati gisa egiaztatu beharko da funts horien jatorria zein den eta nola aplikatuko zaien dirulaguntzaren xede diren jardueri.
- e) Justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli izan balira, itzultzearen ordainketa gutuna.

IV. eta V. eranskinetan agertzen den justifikazio-kontu sinplifikatuko gastuen frogagiriak ez dira justifikazioarekin batera aurkeztu behar (hurrengo paragrafoan zehazten diren salbuespenak izan ezik), baina jatorrizkoak gorde beharko dira. Getxoko Udalak egokitzat jotzen dituen egiaztagiriak eskatu ahalko dizkio erakundeari, dirulaguntza egoki aplikatzen ari dela frogatzeko balio badute.

Langile-gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da, honako formula hauetakoren bat erabiliz:

- Nominak eta horiek ordaindu izanaren frogagiria.
- Kotizazioen likidazioaren ordainagiria eta ordaindu izanaren frogagiria
- 110 eta 190 ereduak eta ordaindu izanaren frogagiria.

Emandako dirulaguntzaren % 10etik gorako zenbatekoa duten gastuen frogagiriak ere aurkeztu beharko dira.

Justifikazio kontuan aipatu gastuen frogagiri bezala onartuko dira merkataritzaren trafiko juridikoan baliozkoak diren dokumentuak, beraz, erosketa tiketak baztertuak geldituko dira. Erakundeek 4/2013 Foru Dekretuak, urtarrilaren 22koak, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Arautegia onartzen duenak (2013ko urtarrilaren 29ko BAO), xedatutakoa bete beharko dute fakturen eta faktura sinplifikatuen edukiari dagokionez (4/2003 FDaren 6. eta 7. artikulua)

Ez badu diruz lagundutako proiektuaren justifikazioa adierazitako epean aurkezten, emandako dirulaguntzaren itzultzeko prozedura izapidetuko da.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 42. artikulua aplikatuz, itzulketa-prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

Erakunde onuradunak jaso duen laguntza osorik edo zati batean itzuli ahalko du borondatez, horixe egiteko eskatu aurretik. Eskaera ebatzi egingo da eta, gero, erakundeari jakinaraziko zaio, ordainketa egiteko modua eta epea adierazita.

Hori guztia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua betez; horren bidez onetsi zen Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudia.

12. artikulua: DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (EB 2016/679) eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, Getxoko Udalak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Erakunde laguntzaileentzako dirulaguntzak" izeneko tratamendu-jardueraren parte izango direla. Tratamendu horren arduraduna Getxoko Udala da eta tratamenduaren xedea Getxoko Udalaren eskumeneko gizarte-kohesioko politikekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea da. Bildutako datuak beharrezkoak dira Getxoko Udalari esleitutako botere publikoak baliatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahalko zaizkie. Datuen titularrek euren datuak kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, bai eta horien tratamenduaren aurka egin edo mugatu ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute Getxoko Udalaren posta-helbidera edo datuak@getxo.eus helbide elektronikora.

13. artikulua: BALORAZIO-IRIZPIDEAK

2A ildoko proiektuen balorazioaren kasuetan aplikatu behar dira. Gehienez ere, 100 puntu lortu ahal izango dira. Proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte balorazio-irizpideetan, eta horietatik gutxienez 7 zeharkakotasunean lortuko dira.

Erakundeek idatziz jaso beharko dituzte balorazioan kontuan hartzea nahi duten alderdi guztiak, eta, adierazitako kasuetan, horiek frogatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

Balorazio-irizpideak:

1. Proiektuaren kalitate teknikoa: 33 puntu guztira
 - Helburu, jarduera eta emaitzen arteko koherentzia (gehienez 10 puntu)
 - Proiektuaren argitasuna eta zehaztasuna (gehienez 3 puntu)
 - Proiektuan erabilitako metodologia (gehienez 6 puntu)
 - talde hartzailearekiko egokitasuna eta zer testuingurutan egingo den (gehienez 3 puntu)
 - beharrezko bitartekoak eta eskakizun teknikoak (langileak, materialak). (gehienez 3 puntu)
 - Jarraipen-sistema eta adierazleak txertatzea (gehienez 6 puntu)
 - Berrikuntza. Dirulaguntza-ildo honen xedea lortzen lagunduko duten jarduera berritzaileak (gehienez 3 puntu). Berrikuntzatzat jotzen ditugu:
 - Udalerrian orain arte garatu ez diren proiektuak
 - Garatzeko metodologia berritzaileak proposatzen ditu
 - Aurretik garatutako proiektuei dagokienez hobekuntzak ematen ditu
 - Euskara erabiltzea (gehienez 5 puntu)
 - Jardueren % 40 euskaraz egitea proposatzen du (5 puntu)
 - Jardueraren bat euskaraz egitea proposatzen du eta/edo erabiltzaileei komunikazio-hizkuntza aukeratzeko aukera ematen die, barne-irizpidea (2 puntu)
2. Bideragarritasuna: 11 puntu guztira
 - Aurreko beste esperientzia edo azterlan batzuekin alderatzea (gehienez 2 puntu). Dokumentu bidez eta beste esperientzia batzuen emaitzetan oinarrituta justifikatuko da proposatutako proiektuaren egokitasuna eta bideragarritasun teknikoa.
 - % 40tik gorako kofinantzaketa edo autofinantzaketa (gehienez 2 puntu)

- Aurrekontuaren doikuntza: partidak banakatzea aurkeztutako aurrekontuan, proformako fakturak edo aurrekontuak gehitzea (gehienez 4 puntu)
 - Erakunde-bideragarritasuna (3 puntu guztira)
Proiektua garatzean autonomia-, foru- edo toki-administrazio batek parte hartu izana administrazio horrek sinatutako abal baten bidez ziurtatuko da.
3. Hartzaileak: 9 puntu guztira
- Zaurgarritasun-egoeran dauden hartzaileak babesteko ekintzak sustatzen ditu (gehienez 2 puntu).
 - Hartzaileen bizi-kalitatea hobetzea ekar dezaketen hezkuntza-alderdiak eta/edo autonomia pertsonaleko alderdiak sustatzen ditu. (gehienez 2 puntu)
 - Diruz lagundutako ekintzaren hartzaileen parte-hartze aktiboa sustatzea. (gehienez 2 puntu)
 - Proiektua garatzean erreferentziazko erakundeen partaidetza bermatua edo hartzaileen interesa (gehienez 3 puntu). Proiektua gauzatzeko ikastetxe, erakunde edo kolektiboren baten parte-hartze aktiboa behar bada, ikastetxeko zuzendaritzaren, erakundearen edo inplikaturako kolektiboen gutun bat erantsi beharko da, non proiektuan parte hartzeko interesa dutela jakinaraziko duten.
4. Ibilbidea eta sareko lana: 9 puntu guztira
- Erakundeak azken bost urteetan Getxon proiektu edo jarduera bat garatu izana honako arlo hauetako batean: garapenerako lankidetzak, berdintasuna, immigrazioa eta kulturartekotasuna, gazteria edo gizarte-zerbitzuak (gehienez 3 puntu)
 - Antzeko proiektuak garatzean erakundeak duen esperientzia egiaztatua. (gehienez 3 puntu)
 - Erakundeak azken bi urteetan udalerriko sare, foro edo kontseiluetan parte hartu izana (gehienez 3 puntu)
5. Eragina: 8 puntu guztira
- Aurkeztutako proiektuak baliabide teknologikoen bidez hedatzeko neurriak jasotzen ditu, eta neurri horiek proiektuak eragin sozial handiagoa izatea ekarriko dute (gehienez 3 puntu)
 - Jarduerak edo proiektuak eragindako ondorioen iraunkortasun-maila. (gehienez 2 puntu)
 - Boluntarioek proiektua edo jarduera garatzean parte hartzea. Boluntarioen kopurua eta bete beharreko funtzioak zehaztu beharko dira. (gehienez 3 puntu)
6. Zeharkakotasuna: 30 puntu guztira
- Genero-ikuspegia txertatzea: (gehienez 10 puntu)
 - o Sexu/genero aldagaia sistematikoki sartu da proiektuaren fase guztietan: diagnostikoa, diseinua, plangintza, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa. (gehienez 2 puntu)
 - o Ikuspegi interseksionala kontuan hartzen du, eta analisietan bestelako aldagaiak gehitzen ditu, hala nola adina, sexu- eta genero-identitatea, etnia, jatorria, migratzailea/errefuxiatua izatea, klase soziala edo dibertsitate funtzionala. (gehienez 2 puntu)
 - o Esku hartu nahi duen errealitatea aztertzen du, eta errealitate hori gizonentzat eta emakumeentzat zer zentzutan den desberdina aztertzen du. (gehienez 2 puntu)
 - o Emakumeentzako eta gizonentzako berariazko helburuak ezartzen ditu, haien premien arabera. (gehienez 2 puntu)

- Ekintza positiboko neurriak hartzen dira emakumeek proiektuan parte har dezaten bultzatzeko. (gehienez 2 puntu)
- Proiektua garatuko duen taldeak prestakuntza espezifikoa izango du (30 ordutik gorakoa), deialdi honen xede diren zeharkako politika eta arloetako batean. (gehienez 6 puntu)
 - Prestakuntza espezializatua arlo batean (2 puntu)
 - Prestakuntza espezializatua bi arlotan (4 puntu)
 - Prestakuntza espezializatua hiru arlo edo gehiagotan (6 puntu)
- Proiektuaren planteamenduak zeharkakotasuna txertatzeko funtsezko alderdiak jasotzen ditu: (gehienez 5 puntu)
 - Udalerrriaren aniztasuna kontuan hartzen du eta errealitate horri dagokionez neurri espezifikoak proposatzen ditu (analisi-, diseinu-, gauzate- edo ebaluazio-faseetan). (puntu 1)
 - Estereotipo sexistak, estereotipo negatiboak eta pertsonetikiko aurreiritziak desaktibatzekeko estrategiak garatzen ditu (gehienez 1 puntu).
 - Bateragarritasun-neurriak eta irisgarritasun-bermeak kontuan hartzen ditu, hartzaileren parte-hartzea bultzatzeko (gehienez 1 puntu).
 - Rolak eta zereginak ekitatez banatzea sustatzen du, rol tradizionalak hausteko eta/edo erantzunkidetasuna sustatzeko (gehienez 1 puntu)
 - Tokiko erantzunak proposatzen ditu desberdintasun globalen kausetan eragiten laguntzeko. (Gehienez 1 puntu)
- Proiektuaren/jardueraren bidez lortu nahi diren emaitzak: (gehienez 9 puntu)
 - Berdintasunik eza sortzen duten egoerak prebenitzeko lan egiten du. (Gehienez 1 puntu)
 - Ekintzaren hartzaille diren kolektiboen parte-hartzea eta inplikazio soziopolitiko eta/edo asoziazionismoa sustatzen ditu (gehienez 1 puntu)
 - Getxotarrak honako gai hauetan sentsibilizatzen laguntzen du: berdintasuna, indarkeria matxistaren prebentzioa, hezkidetzaren inklusioa, harrera, lankidetzaren giza eskubideak, bakerako hezkuntza eta/edo kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza, besteak beste. (Gehienez 1 puntu)
 - Emakumeen ahalduntze-prozesu indibidualak eta kolektiboak sustatzen laguntzen du (gehienez 1 puntu)
 - Kulturarteko gaitasuna eta kontzientzia antirrazista areagotzea sustatzen du. (Gehienez 1 puntu)
 - Elkarreragin positiboa eta errealitate anitzen arteko topaguneak sustatzen ditu (gehienez 1 puntu)
 - Proposatutako ekintzen bidez Getxoko udalerrian elkartasunaren balioa bultzatzen du (gehienez 1 puntu)
 - 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuetakoren bat lortzen laguntzen du (gehienez 1 puntu)
 - Berdintasun-helburuak lortzearekin lotutako ebaluazio-adierazleren bat barne hartzen du. (Gehienez 1 puntu)